

MENDIKO ELUR-JAUSIAK

Beste egun aspergarri bat... Esnatu, gosaldut, haginak garbitu, dutxatu... hori egin eta gero ordenagailuan telelana egin eta bukatzerakoan mendi buelta bat egiten dut baina gaur egun berezi bat da. Atzo, telelana egiten negonenean, gmail bat heldu zitzaidan. Barkatu, barkatu ez naiz aurkeztu, ni Noah naiz, Adelaidan jaio nintzen baina nire gurasoen lanagatik Perthera joan ginen. Orain 23 urte ditut eta argazkilaria naiz baina diru gehiago irabazteko telelana egiten dut. Bueno, atzo gertatutakoa kontatzen jarraituko dut, lehen esan dizuedan korreoa ireki nuenean Himalaia mendikateari argazkiak ateratzeko deitu zidaten.

Nik baiezkoa esan nien, mendia delako nire lekurik gustukoena. Gaur goizean bidaia hartu dut. Pertheko portuan nago itxaroten nire itsasontziari. Itsasontzira sartu naiz jende oso gutxi dago baina oso jatorrak dira. Itsasoari eta itsasontziari argazki politikak atera eta lotara sartu naiz. Hamahiru egun pasa ditut barkuan, ohea ez zen oso eroso baina azkenean Chenaira heldu naiz. India oso polita da baina gaur arratsaldean Katmandura joan behar naiz. Autobusera sartu naiz, maletak eta motxilak gorde eta lo egingo dut.

Kaixo, ni Max naiz eta katua naiz. Gaur ez dut lortu ezer ehizatzea eta sekulako gosea dut. Oooh zerbait goxoa usaintzen dut autobus horretako motxiletan, horra joango naiz. Uste dut motxila hau dela, irekita dagoenez sartu egingo naiz. A ze janari goxoa hemen geratuko naiz.

Bi egun geroago Katmandura ailegatu naiz. Hotz handia egiten du. Motxila hartu, hotelera joan, afaldu eta lotara joango naiz.

Goizeko laurak dira, mendira joan behar naiz, horrela engunsentia ikusi eta argazkiak aterako ditut.

Motxila zabaldu dut...aaaaaaaah!!! Katu bat!!! Zertan zabilta nire motxilan?

-Janaria bakarrik nahi nuen.

-Hitz egiten dakizu!

-Bai, nire aspaldiko jabea buda bat zen eta berak erakutsi zidan hitz egiten. Baina gero hil zenean bakarrik geratu nintzen janari gabe eta etxerik gabe. Baina zure motxila ikusi nuenean jateko bila salto egin nuen. Lagunak izan gaitezke, ez dut nahi berriro bakarrik geratu.

-Bale, baina nirekin bizi nahi baduzu mendira joan beharko gara.

-Bale, bale baina ez laga niri bakarrik.

-Nola deitzen zara?

-Max deitzen naiz, eta zu?

-Noah. Goazen orduan Max.

Eskerrak Noah topatu dudana, azken urteetan oso bakarrik sentitu naiz.

Anapurnara heldu gara, oso polita da behetik ikusita, baina gora heltzea oso zaila da. Igotzen hasiko gara bestela oso berandu egingo zaigu. Anapurnako lehenengo kanpalekura heldu gara, 4.130 metrora dago. Gaur da, eta hemen arnastea kostatzen zaigu.

-Max, ondo zaude!? Max!...
-Esnatu zaitez!! Maxxxxxx!!!
-Zertan zabiltza!? Lotan nengoen!
-Baina lehenengo afaldu egin behar dugu lotara joateko. Bigarren eguna da eta 6.700 metrotan gaude. Eh!! zer da hori?
-Elur-jausi bat da! Bidea tapatu digu.
-Goazen horra, ea norbaitek mina hartu duen.

Espero dut inorrek ez mina hartzea, hemen goian oso zaila da salbatzea.

-Hor zerbait dago, goazen ikustera.
-Ezin dut sinetsi, elurretako leopardo bat da!
-Ikusi, gaixoak odola du hankan!
-Lagundu egin behar diogu, ezin da hemen bakarrik geratu.
-Tenplu batera eramango dugu ea hor zerbait egin dezaketen.
-Zu motxilan sartu, nik leopardoaren eramango dut arrastaka.
-Bale. Heldu gara, atea irekita dago sartu egingo gara.
-Ez dago inor. Zer egingo dugu?
-Noah badago zerbait ez dizudana esan. Botereak ditut.
-Benetan! Zein botere dituzu!?
-Ba, sendatzeko ahalmenak, telekinesia eta buruko aluzinazioak egin ahal ditut.
-Perfekto, orduan leopardoaren sendatu dezakezu eta nik argazkiak aterako dizkizuet. Nik kamera hartu eta argazkiak aterako dizkizuet.
-Oso zauri sakona du baina lortuko dut sendatzea.
-Oso argazki politak aterako ditut. Bukatu duzu ezta?
-Bai. Orain joaten lagako dugu
-Aguuuuuur
-Anapurna igotzen jarraituko dugu ez?
-Bai, goazen
-Laister helduko gara. 100 metro bakarrik falta dira.
-Heldu gara! Ze polita!
-Argazki pila aterako ditut. Notizitarako argazki nahikoa ditut, goazen beerantz, gainera oxigenoa oso txarra da hemen goian
-Kontuz! elur-jausia! harrapatu egingo gaitu!
-Etorri nire atzetik harri baten atzean babestuko gara. Max, Max ondo zaude?
-Bai baina elurrez estalita gaude.
-E! Norbait elurra kentzen dago, nor izango da?
-Lehen salbatu dugun leopardoaren da! Mila esker.
-Orain joan egin behar gara baina hurrengoan itzuliko gara.
-Hurrengorarte.

Lehenengo kanpalekura itzuli gara. Jendea oso jatorra da, denak ari dira ospatzen leopardoaren salbatu dugula.

Azkenean Australiara iritsi gara eta Max nirekin bizi da, argazki politak ateratzen laguntzen dit. Bizitza ondo daramagu, baina norbaitek asmatuko du zer gertatu zen leopardoarekin?